

[Iruña]Asamblea del Gaztetxe denuncia el "desalojo más silenciosos que ha conocido esta ciudad"

IRUÑEKO ALDE ZAHARREKO GAZTETXEA :: 22/11/2016

[Eusk/Cast] "Este proceso lo que verdaderamente esconde es la tensión y la dialéctica entre la institución y el movimiento popular"

[Euskara]

Alde Zaharreko Gaztetxeko asanbladaren komunikatua

Duela astebete, Alde Zaharreko Gaztetxea desalojatu zen isilpean eta Gaztetxearen erabiltzaileei aurre-abisurik eman gabe. Desalojoa baino lehen Udalarekin izandako prozesuan gertatutakoari buruzko hainbat kontakizun faltsu zabaldu dira eta, testuinguru horren baitan, deslegitimazio soziala sortu da, kasu batzuetan irainak izatera iritsi arte. Egoera ikusita, gure iritzia azaleratzeko, prozesuan funtsezkoak iruditzen zaizkigun puntuai buruzko azalpenak eman nahi ditugu:

Konpainia 3.a okupatu ondoren, eta jakinaren gainean egonik eraikin horren jabeek, Nasuvinsak eta Nafar Gobernuak, modu isilean bada ere, desalojatu nahi gintutzela, Udalarekin negoziazioak abenduan hasi ziren.

Urtarrilean, Gaztetxeko Asanbladak Udalak eskainititako aukeren artetik Kaparroso Txaletera lekualdatzeko erabakia hartu zuen. Era berean, Udalak urtebeteko erabilerarako lagapena proposatu zuen, ondoren lehiaketa publikora ateratzeko, eta eraikina gazteek era autogestionatuan erabiltzeko udal-ekipamendu bat izan zedin.

Hasieratik epeak aldakorrak izanik eta horiek betetzen ez zirenez, horrek deskonfiantza-giroa sortu eta prozesuari buruzko zalantzak areagotu zituen.

Gune horren erabilera-lagapena emateko bi betebehar zeuden: batetik, erabilera-lagapen kontratua, eta bestetik, Udalak eraikin berrira joan aurrelik egin beharreko obren lizentzia, gunea aipatutako lagapen publikora egokitzeko. Horri dagokionez, lehiaketarekin eta prozesuaren zenbait atalekin ados egon ez arren, negoziaketetan murgildu ginen.

Negoziaketa horien baitan, abokatu batek lagundurik, bi proposamen luzatu genizkion Udalari: alde batetik, EHko zenbait Gaztetxeren esperientziatan oinarritutako hainbat lagapen-kontratu; eta bestetik, gure proiekturari eta eman nahi zioten erabilerari egokituko zitzaison obra-proiektua. Udalak bi proposamenak atzera bota zituen. Bata udal-ekipamendura egokitzen ez zelako, eta bestea, udal-legedia betetzen ez zuelako eta egokitzapen-obren

dimentsioagatik.

Apirilean, hortik hiru hilabetera emango den lekualdaketa data berri bat proposatzen digute, eta Udalari jakinarazten diogu Nafarroako Gobernuak eta Nasuvinsak presiopean gintuztela (17 identifikazio eta prozesu judizial baten irekiera zirela eta). Ekainaren 18an, Gaztetxeko Asanblada Kaparrosoko Txalettera lekualdatzea erabaki zen, egoera edozein izanik ere. Gure lagapen-kontratuari muzin egin ondoren, hurrengo hilabeteetan Udalak lagapen-kontratu berri bat helarazi zigun, eta kontratu horrekin erabat ados egon ez arren, onartu egin zen, egoerak aurrera egin ahal izateko. Ekainaren 17, azken orduan eta desalojoaren mehatxupean, aurrez adosturik ez zegoen beste prekarioko lagapen-kontratu bat sinatu genuen.

Lekualdatu ondoren, eta honezker ohituta gauden instituzioen paralisi eta isiltasunagatik, asanbladak erabaki zail bat hartu zuen: proiektuak aurrera jarraitzeko udan zehar eraikina egokitzen hastea. Egun hauetan zehar egondako nahasmen eta gaizkiulertuak saihesteko, azpimarratu eta argi utzi nahi dugu ez zela eraikinaren egiturari dagokion osagairik bota,

eraikinak egitura perimetrala baitu; eta, horretarako, otsailetik Udalarekin diseinatzen hasi ginen proiektua jarraitu genuen, gainbegiratze teknikopean. Eraikinaren ezegonkortasuna ez dute egindako obrek eragin, baizik eta eraikinak ez zuelako beharrezko eta berezko ezaugarririk, eman nahi zitzaison egoera berrira egokitzen. Horri dagokionez, hiru gauza ditugu aipatzeko: hasteko, gainbegiratze teknikopean gunearren egokitzapena egiteko beharrezko neurriak hartu zirela; ondoren, instituzioen legedian eta datuetan oinarrituz edukiera errespetatzeko protokoloak martxan jarri zirela; eta azkenik, eraikinaren alderdi teknikoei dagokienez arduraz jokatu genuela.

Egoera ikusita, GeroaBaik hitzarmena eteteko mozioa aurkeztu zuen, eraikinaren ezegonkortasunagatik eta kontratua ez betetzeagatik, berau ixtea eskatuz. Azaroaren 14ean, joan den astelehenean, UPNren eta PSNren botoekin batera mozioa onartzen da. Azkenik, asteartean, azaroaren 15ean, asanbladari aurre-abisurik eman gabe, udaltzaingoa bidali zuten Gaztetxeko zerraila aldatzera, hiri honek ezagutu duen desalojorik isilena eraginez. Horrela, etenik gelditzen da aspalditik gauzatzeko zegoen gazte eta herri mugimenduetatik abiatutako proiektua.

Salaketa horien aurrean, hainbat galdera ditugu luzatzeko: ez al da legezkoa eraldaketa sozialaren alde lan egiten duten kolektibo eta pertsonen auto-antolaketa, paralisiaren eta instituzioekin emandako komunikazioaren aurrean, edozein izanik ere azken horien kolorea? Are gehiago: mugatu al daitezke mundu legal hau modu erradikalalean eraldatzeari lotutako prozesu autogestionatuak, legeak herriaren zerbitzura ez dauden arren?

Prozesu honek benetan atzean gordetzen duena instituzioen eta herri mugimenduaren arteko tentsioa eta dialektika dira. Eta ziur gaude, dudarik gabe, herri mugimendua bera egon behar dela gizarte honen eraldaketa erradikalaren buru.

Azkenik, aldarrikatzen dugu Gaztetxearen proiektua auzoaren eraldaketa sozialaren alde ari dela lanean, eta ez duela borroka horretan etsiko.

Horregatik, alde batetik, Udalari exijitzen diogu gertaerei buruzko haien bertsio faltsua atzera botatzeko, Udalak berak hein batean bertsio hori zabaltzen lagundu baitu. Bestalde, abenduaren 2an Alde Zaharreko Gazte mugimenduaren proiektua ezagutzea eta bertan parte hartzera dei egiten dizuegu, eta abenduaren 3an ospatuko den gaztetxe eta gune autogestionatuen alde, eta desalojoen aurka, burutuko den mobilizazioan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Gaztetxeak defendatu!

Auzo bat, gaztetxe bat!

Autogestioa aurrera!

[Castellano]

Comunicado de la asamblea del Gaztetxe de Alde Zaharra

Hace una semana el Gaztetxe de Alde Zaharra fue desalojado con un absoluto silencio y sin previo aviso a las personas que le dábamos vida. Previo al desalojo se han vertido una serie de relatos falseados de lo ocurrido en este proceso con el ayuntamiento y se ha creado un contexto de deslegitimación social que en algunos casos ha rozado el insulto. Ante esto, queremos hacer las aclaraciones pertinentes en lo que pensamos son puntos clave de este proceso:

Tras la okupación de Compañía 3 y a sabiendas que sus propietarios, Nasuvinsa y Gobierno de Navarra, querían, aunque fuera de tapadillo, desalojarnos, empiezan en diciembre las negociaciones con el ayuntamiento. En enero la asamblea del Gaztetxe decide trasladarse al Chalet de Caparroso. El ayuntamiento propone una cesión de uso a un año para que luego salga a concurso y sea un equipamiento municipal que se gestionara de forma autogestionada por los y las jóvenes.

Desde un principio los plazos varían y no se cumplen, creando un escenario de desconfianza que generaba cada vez más dudas sobre este proceso.

Para hacer posible la cesión de este espacio, por un lado, era necesario el contrato de cesión de uso y por otro, las obras pertinentes a realizar por el ayuntamiento antes del traslado al nuevo edificio para adecuar el espacio a uso de pública concurrencia. En ese sentido, y a pesar de la disconformidad con el concurso y partes del proceso, nos volcamos en la negociación y proponemos tanto un contrato de cesión con una abogada basado en diferentes experiencias de gazttxes de EH, como un proyecto de obra que se ajustaba al proyecto y al uso que se le quería dar. El ayuntamiento rechaza las dos propuestas una

porque no se ajusta a la vía del equipamiento público y la otra por la normativa municipal y por la dimensión de las obras de adecuación. En abril se le comunica al ayuntamiento que por la presión por parte del Gobierno de Navarra y Nasuvinsa (17 identificaciones y apertura de un proceso judicial) el 18 de junio la asamblea del Gaztetxe se trasladará al chalet de Caparroso sea cual sea la situación. Durante esos meses y tras la negativa a nuestro contrato de cesión el ayuntamiento nos traslada un nuevo contrato de cesión que, aunque no lo compartimos por completo, le damos vía libre para que la situación no se estancará. El día 17 de junio a último hora, bajo presión de desalojo, se firma un contrato de cesión de uso a precario que no era el acordado.

Tras el traslado y por la parálisis y el silencio institucional al cual ya estamos acostumbradas. La asamblea toma una decisión difícil: comenzar adecuar el edificio en verano para que el proyecto siguiera adelante. Queremos recalcar y dejar claro para evitar confusiones y malentendidos que se han dado a lo largo de estos días que no se derribo ningún elemento estructural del edificio ya que la estructura es perimetral y que se siguió el proyecto que comenzamos a diseñar en febrero junto con el ayuntamiento y bajo supervisión técnica propia. La inseguridad del edificio no es resultado de las obras realizadas, sino que es consecuencia de las características propias del edificio en vistas al nuevo uso que se le quiere dar. Ante esto sólo tenemos que decir que, se han tomado las medidas necesarias para la realización del acondicionamiento del espacio bajo supervisión técnica propia, que se han puesto en marcha protocolos para que el aforo se cumpliera según los datos y normativas institucionales y que hemos actuado con responsabilidad en esta materia en lo que concierne al aspecto técnico del edificio.

En esta situación, GeroaBai propone la moción de cese del convenio y cierre del edificio por incumplimiento de contrato e inseguridad del mismo. El lunes 14 es aprobado con los votos de UPN y PSN. Finalmente, ese mismo lunes el ayuntamiento manda a Policía Municipal a cambiar la cerradura del Gaztetxe sin previo aviso a la asamblea y rubrica uno de los desalojos más silenciosos que ha conocido esta ciudad, quedando así paralizado el proyecto mismo que parte del movimiento juvenil y popular del barrio llevaba tiempo queriendo materializar.

Ante las diferentes acusaciones ¿Acaso no es legítimo ante la parálisis y la falta de comunicación institucional la autoorganización de los colectivos y las personas que trabajan por la transformación social, sea cual sea el color de esa institución? Es más, ¿se pueden ceñir los procesos autogestionarios de transformación radical del mundo en el que vivimos en parámetros legales, máxime cuando esas leyes no están al servicio de las clases populares?

Este proceso lo que verdaderamente esconde es la tensión y la dialéctica entre la institución y el movimiento popular y creemos sin lugar a dudas que es este último el que debe encabezar un cambio radical de la sociedad en la que vivimos.

Por último, reivindicamos que el proyecto del Gaztetxe camina en dirección a la transformación social del barrio y que no cesará en esta lucha. Por ello, por un lado, exigimos al ayuntamiento que se retracte de la versión falseada de los hechos que él también ha propiciado en difundir. Y por otro, hacemos un llamamiento a conocer y participar en el proyecto del Gazte Mugimendu de Alde Zahar el 2 de diciembre y a acudir a la movilización que se celebrará el 3 de diciembre en Iruña en defensa de los gaztetxes y espacios autogestionados y en contra de los desalojos de estos.

Gaztetxeak defendatu!
Auzo bat, gaztetxe bat!
Autogestioa aurrera!

<https://eh.lahaine.org/iruna-asamblea-del-gaztetxe-denuncia>